ZIGOR GOROSTIOLA SAUCE (1. guztira 1)
KULTUR ETXEKO ZUZENDARI TEKNIKOA / DIRECTOR TÉCNICO DE LA CASA DE CULTURA
Sinaduraren data: 17/03/2026
HASH: d4f5578b4d50449c3aa2f76305870499

GETXO KULTURAKO GARBIKETA ZERBITZUAK KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1. LOTEA: MUSIKA ESKOLA, LIBURUTEGIAK ETA KULTUR ETXEAK

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 44

AURKIBIDEA

I. kapitulua: XEDEA ETA BALDINTZA OROKORRAK.....

1. KONTRATUAREN XEDEA.....
2. ESPAZIO-EREMUA.....
3. DENBORA-EREMUA.....

II. kapitulua: Kontratuan ohiko lan moduan jasotako prestazioen xehetasuna.....

4. BARNEALDEAK ETA INSTALAZIO FINKOAK GARBITZEA.....
5. KALTEAK KONPONTZEA, INSTALAZIOETAN MANTENTZE-LANAK EGITEA ETA ERABILERA PUBLIKOKO KOMUNAK IREKI NAHIZ IXTEA
6. EREAGAKO HONDARTZAN DAUDEN ERABILERA PUBLIKOKO KOMUNETAN LANGILEAK EGOTEA.....
7. ONDASUN SUNTSIKORRAK ALDIZKA HORNITZEA
8. HIRI-HONDAKINAK JASOTZEA ETA GAIKAKO BILKETAK.....
9. AGIRI KONFIDENTZIALAK SUNTSITZEA.....
10. EDUKIONTZI HIGIENIKO-SANITARIOAK, BAKTERIOESTATIKOAK ETA AIRE-FRESKAGARRIAK INSTALATZEA .....
11. JESUSEN BIHOTZA UDAL-EGOITZA……

III. kapitulua: KONTRATUAREN DINAMIKA: ANTOLAKETA, HEDAPENAK ETA MURRIZKETAK, ETA ZERBITZU-PRESTAZIOA EZINEZKOA IZATEA.....

12. OHIKO LANAK ANTOLATZEA.....
13. HANDITZEAK, GUTXITZEAK ETA ALDAKETAK……

IV. kapitulua: ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK ETA ESKUBIDEAK.....

14. BETEBEHAR OROKORRAK
15. MATERIALAK ETA MAKINAK.....
16. MATERIALAREN ESKURAGARRITASUNA.....
17. ETENGABEKO ARRETA.....
18. KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK.....
19. LANGILEEN KONTRATU-BALDINTZAK
20. KONFIDENTZIALTASUNA
21. ADMINISTRAZIOAREN AHALAK: PARTEAK, IKUSKARITZAK ETA KALITATEA.....
22. ORDAINTZEKO MODUA.....
23. ZEHAPEN-ARAUBIDEA.....

V. kapitulua: ESKAINTZAK EGITEA ETA BALORATZEA.....

24. LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA.....
25. LIZITATZAILEEN PROPOSAMENA, KONTRATATZEKO GAITASUNA FROGATZEA
26. LIZITAZIOAREN AURREKONTUA.....
27. BALORAZIO-IRIZPIDEAK .....
28. EGINDAKO LANAK ORDAINTZEA……..
29. KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK……

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 44

ERANSKINEN ZERRENDA

I. ERANSKINA.- ERAIKINEN ZERRENDA

II. ERANSKINA.- GARBIKETA-LANEN MAIZTASUNAK

III. ERANSKINA.- LANGILEAK: LANGILEEN ZERRENDA ETA SUBROGAZIOA

IV. ERANSKINA.- ERAIKIN BAKOITZEKO AZTERLAN EKONOMIKOA

V. ERANSKINA.- ESKAITZAREN LABURPEN EKONOMIKOA

VI. ERANSKINA.- METRO KARRATU BAKOITZEKO PREZIOEN INFORMAZIO-TAULA

VII. ERANSKINA.- DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

VIII. ERANSKINA.- MANTENTZE-GARBIKEKETAN BETE BEHARREKO JARRAIBIDE OROKORRAK, ETA KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE GAI BATZUK

Balioztatze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 44

I. KAPITULUA: XEDEA ETA BALDINTZA OROKORRAK.

1.- KONTRATUAREN XEDEA.

Kontratuaren xedea hurrengo zerbitzu-prestazioak ematea da:

1.1.- Ohiko lanak:

a) Getxo Kulturak bere jarduna gauzatzen duen eraikinen eta bulegoen garbiketa integrala, I. eranskinean deskribatutakoak.
b) Ondasun suntsikorrak aldian-aldian hornitzea.
c) Garbitu beharreko lekuetan sortzen diren hondakinak gaika biltzea.
d) Gaikako bilketa egitea, adjudikaziodunak sortutako hondakinak biltzea (etxeko hondakin gisa asimilagarriak direnak), GEEHak 110/2015 EDrekin bat eginez, etab...
e) Agiri konfidentzialak suntsitzea eta indarrean dagoen araubide espezifikoarekin bat eginez deuseztatzea.
f) Edukiontzi higieniko-sanitarioak instalatzea eta kudeatzea.
g) Bakteriostatikoak edo aire-freskagarriak jartzea, mantentzea eta kudeatzea.

1.2.- Ohiz kanpoko lanak:

Salbuespen gisa eta behin bakarrik egin beharreko garbiketa-lan intentsiboa eta berezia; hala nola eraikin edo lokal berri edo eraberrituen obra-amaierako garbiketa-lanak.

Horiek dira premiazko ekitaldiengatik eta osasun larrialdiengatik sortutako garbiketak, ez-ohikoak, bereziak eta/edo puntualak diren jarduerengatik eskatzen direnak, baldin eta Getxo Kulturak hala nahi duelako eskatzen badira, eta udaleko/udalaz gaindiko hauteskundeak edo udaleko ekitaldi bereziak (besteak beste hautaketa-prozesuak) eta antzeko zereginak direla-eta egiten diren garbiketak.

Edukitzailea nahiz edukia erabat garbitzeko lanak egingo dira, lurzoru-mota bakoitzari dagokion tratamendu espezifikoa barne, Getxo udalerriko eraikin, instalazio edo espazio guztietan.

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 44

Garbitzeko altzariak, alfonbrak eta gainerako elementuak kendu behar direnean, enpresa adjudikaziodunak kendu eta jarriko ditu garbitu ondoren.

1.3.- Antzeko lanak:

Antzeko lanak dira garbiketari lotuta daudenak, baina berezitasun espezifikoak dituztenak —bai erabili beharreko bitarteko osagarriengatik, ezaugarriengatik, bereziak baina ez-ohikoak izateagatik eta urteko maiztasunak puntualak izateagatik—; horiek guztiek, edonola ere, ekipamenduaren apaingarriekin, funtzionamenduarekin, funtzionaltasunarekin eta beharrarekin lotuta egoten dira. Eskaripean egingo diren lanak izango dira eta, edonola ere, puntualak.

Honakoak izango dira:

- Leihoetako gortina-sistemak konpontzea.
- Euri-uren kutxatilak aldizka ikuskatzea eta eraikinak saneatzea.
- Teilatuetako hodiak, askak eta zorrotenak garbitzea.
- Eraikinetako teilatuak edo udal-ekipamenduak birpasatzea, lauak edo okerrak, askotariko hondakinak, landareak, eta abar kenduz eta, behar denean, herbizidak aplikatuz…
- Kutxatila septikoak garbitzea eta hustea.
- Saneamendu-ponpetan eta horien instalakuntza elektrikoetan edo mekanikoetan mantentze-lanak egitea eraikin edo ekipamenduetan.
- Euri-uren sareen harguneak eta saneamendukoak libratzea, zorrotenetatik hasi eta bide publikoko udal-sareetako erregistroetaraino.
- Fatxadak aldizka ikuskatzea, kontratuaren udal-arduradunak hala eskatu ondoren, fatxadako altxaerak, hegalak, hodiak eta askak ikuskatzeko; horretarako, bitarteko osagarri espezifikoak erabiliko dira, besteak beste, plataforma igotzaileak.
- Kargak/objektuak/altzariak aldizka mugitzea edo lekualdatzea.
- Euri-uren eta gorotz-uren sareetako harguneak kamerarekin ikuskatzea.
- Robotekin konpontzea euri-uren eta gorotz-uren harguneak, barneko estalkiak eta eraberritze osoa.
- Udaleko prebentzio-zerbitzuak jarri ez dituen bizi-lerroen instalakuntzak.

Antzeko lanak eskatzeko idatzizko jakinarazpena egingo da. Eskari horretan jasoko da zer nolako lanak eskatzen diren, eta gehieneko epe hauek justifikaziorik gabe urratzen badira, plegu honetako zehapen-araubidea aplikatuko da.

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 44

JAKINARAZPEN-MOTA	LANAK EGITEKO GEHIENEKO EPEA
PREMIA HANDIKOAK	24 ORD.
PREMIAZKOAK	48 ORDU
ARRUNTAK	10 EGUN NATURAL

Kontratatutako zerbitzu guztiak Baldintza Teknikoen Plegu honetan eta Baldintza Ekonomiko Administratiboen Pleguan zehaztutakoari zorrozki erreparatuz emango dira. Halaber, kontratua legeztatzeko administrazio-agiria eta hautatutako eskaintzaren edukia kontuan hartuko dira, edonola ere, baldintza teknikoen pleguan adierazitako gutxienekoa betez.

2.- ESPAZIO-EREMUA

Kontratu honen espazio-eremutzat jotzen dira udal-eraikinetako gela guztiak, horien erabilera kontuan hartu gabe, betiere “UDAL-ERAIKIN ETA -INSTALAZIOEN INBENTARIOA” izeneko I. eranskinean aipatzen direnen barrutian badaude.

Barneko gelak izango dira barneko patioak eta kanpoko zonetako atxikitako patioak, sartzeko kanpoko zonak, terrazak, ibiltzeko moduko estalki lauak (teilatuak), etxolak, igogailuak, markesinak, teilapeak, pasabideak, karpak, gehigarri-mota guztiak, gelak, biltegiak, etab., fisikoki berez eraikina denaren kanpoaldean egon arren, barrutian badaude.

Era berean, kontratu honen xedea da aipatutako eranskinean jasotzen diren eraikinetako leihoak eta beirateak garbitzea, baita leiho-ertzak eta arotzeriak ere, horien materiala gorabehera. Horrez gain, urtean behin pertsianak ere garbituko dira.

Kontratuaren espazio-eremua ezin hobeki ezagutzeko, nahi duten lizitatzaileek kontratuaren xede diren udal-lokalak bisitatu ahal izango dituzte edo planoak ikusteko aukera izango dute, sailarekin hitzordua finkatu ondoren.

Adjudikaziodunak, lizitazioan parte hartzeagatik, kontratuaren xede diren eraikinen egoera onartu beharko du, ordainik erreklamatzeko eskubiderik izan gabe, nahiz eta kontratuaren eginbeharrak zorrozki betetzeko ahalegin gehiago egin behar izan.

3.- DENBORA-EREMUA

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 44

Betearazpen-epea

Kontratuak URTE BETE iraungo du eta administrazio-kontratua formalizatu eta zerbitzu-hasieraren akta sinatu eta biharamunean zenbatzen hasiko da. Kontratuaren iraupen osoa ezingo da URTE BETE baino gehiagokoa izan.

Epeak ABPn eta SPKLn xedatutakoa bete beharko du.

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 7. orrialdea, guztira 44

II. KAPITULUA: KONTRATUAN OHIKO LAN BEZALA AGERTZEN DIREN PRESTAZIOEN XEHETASUNA.

4.- BARNEALDEAK ETA INSTALAZIO FINKOAK GARBITZEA

Barneko eta kanpoko gelak, instalazioak eta eranskinak —alegia, garbitu beharrekoak —, “UDALEKO ERAIKIN ETA INSTALAZIOEN INBENTARIOA” izeneko I. eranskinean zerrendatzen dira.

Askotariko eraikin eta guneetako garbiketa-lanen ezaugarriak eta baldintzak “GARBIKETAREN MAIZTASUNAK” izeneko II. ERANSKINEAN deskribatu dira.

I. eranskinean, eraikin, lokal eta instalazioetan egin behar diren garbiketen ezaugarriak eta baldintzak zehazteko, hainbat taldetan bereizten dira:

A TALDEA – Administrazioko gelak
A1 azpitaldea.- Gela orokorrak
A2 azpitaldea.- Liburutegiak
B TALDEA – Irakaskuntzako gelak
B1 azpitaldea.- Musika Eskola Areeta
B2 azpitaldea.- Musika Eskola Algorta

Enpresa adjudikaziodunak egin behar dituen garbiketa-lanak maiztasunen araubideari buruzko taulan finkatutakoak dira, bertan ageri baitira denboraldiak.

Garbiketa da, bai ohiko edo mantentze garbiketa, bai ohiko garbiketa orokorra (garbiketa sakonagoa). Lanen kostua aurkeztu behar den urteko prezioan islatuko da. Ezaugarriak eta baldintzak “mantentze-garbiketa eta garbiketa orokorrak egiteko jarraibideak” izeneko VIII. ERANSKINEAN daude.

5.- ONDASUN SUNTSIKORRAK ALDIZKA HORNITZEA

Adjudikaziodunak komun eta zerbitzuetarako gelak ondasun suntsikorrez hornituko ditu, zerbitzua eskaintzeko beharrezkoak badira, besteak beste, eskuilak, eskuetarako xaboia, komuneko papera eta eskuak lehortzeko papera. Horiek guztiak udal-lokaletan dauden euskarrietarako egokiak izango dira, etiketa ekologikoak izango dituzte eta

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 8. orrialdea, guztira 44

gutxieneko kalitatea izan beharko dute. Gainera, ukitzean atseginak suertatuko dira, eta, beharrezkoa bada, produktu hidroalkoholikoak ere hornituko dira.

Kontratuko leku guztietan hondakinak gaika biltzeko poltsak banatuko dira eta koloreen arabera ezberdinduko dira hondakinak. Gainera, hondakinak gaika jasotzeko biltzaileen proposamena egin beharko da gai bakoitzeko, jasangarria, birziklagarria, konpostagarria, eta abar. Poltsa horiek gaikako zakarrontzietan, papera suntsitzeko gailuetan eta edukiontzietan egongo dira, alegia, kontratuaren espazio-eremua osatzen duten leku guztietan.

6.- HIRI-HONDAKINAK JASOTZEA ETA GAIKAKO BILKETAK

Adjudikaziodunak kontratua betetzean sortutako hondakinak kudeatuko ditu, eta bermatu egingo du zuzen kudeatzen direla gaika banatutako hondakinen bilketa-planaren bidez. Hala, hondakinak gaien arabera botako dira bide publikoko etxeetarako edukiontzietan edo papera eta kartoia zuzenean suntsituko dira baimendutako kudeatzaile espezifiko baten instalakuntzetan, eta hori guztia datuak babesteko arau espezifikoak betez egingo da.

Errefusaren zabor-poltsak bota baino lehen itxi egingo dira. Ez dira zapalduko eta behar bezala manipulatuko dira, isurketa likidorik edo objektu zorrotzik badago. Paperontzian ondo eutsitako poltsa berria jarriko da. Gai bakoitzaren poltsa guztiak hurbilen dagoen edukiontzian botako dira, kontuan hartuz nolako hondakina den, eta hori guztia, dagokion edukiontzia erabiltzeko (papera, ontziak, errefusa, organikoa eta abar). Edonola ere, adjudikaziodunak proposatu beharko du zeintzuk diren ingurumenarentzako irtenbide jasangarrienak poltsetan, ontzietan eta abarrean erabiltzeko materialari dagokionez.

Garbiketaren ondorioz sortutako produktu guztiak adjudikaziodunak egunero erretiratuko ditu, lana amaitzen duenean. Horretarako, bitarteko egokiak erabiliko dira: poltsak, edukiontziak eta abar, Udaleko Hiri Garbiketaren Ordenantzan jasotakoak (getxo.eus webgunean edo 2001eko martxoaren 9ko 49. BAOn) edo kontratuaren udal-arduradunak, horrekin bat eginez, adierazitakoak beteko dira.

Eramateko orduan, ikastetxeek gela guztietan sortutako hondakinak sartuko dira, haurren pixoihalak barne, betiere garbiketa publikoko udal-zerbitzuek jaso baditzakete, zuzentasunez gaika banatuta.

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 9. orrialdea, guztira 44

Garbiketa Publikoko Udal Zerbitzuak jaso ditzakeen produktu horiek guztiak, helduen pixoihalak barne, frakzio bidez behar bezala bereiziko dira.

Ostiralero, bide publikoan dagoen hondakin mota horren edukiontzi espezifikorako paper metatua biltzeko ibilbide bat egingo da, kontratuko eraikin guztiak zeharkatuz. Nabarmentzekoa da liburutegietan, liburuetan eta abarretan materialak aldatzeagatik sortzen diren aparteko erretiratzeak aparteko lanen eta antzekoen koadroaren arabera fakturatuko direla.

Garbiketa-zerbitzuak sortutako hondakinei dagokienez (papera eta kartoia, ehunak, ontzi arinak, errefusa, organikoa, beira, GEEHak...), adjudikaziodunak sortutako hondakinak bereiziko ditu eta asimilagarriak badira hiriko edukiontzietan botako ditu. Bestela, hondakin arriskutsuen kasuan (nagusiki, arriskutsu bezala sailkatuak dauden garbiketa-produktuen ontziak, informatikako suntsigarriak, GEEHak, eta abar), kudeatzaile baimenduna erabili beharko du.

Kontratuaren hasieran, adjudikaziodunak baimendutako kudeatzaileak aurkeztuko ditu eta horiei emango dizkie hondakin arriskutsuak. Horrez gain, metodologia eta plana ere aurkeztuko ditu, deialdiaren pleguekin eta aurkeztutako eskaintzarekin bat eginez. Edonola ere, ez dira pleguan eskatutakoak murriztuko eta horiek hobetzeko aukera egongo da, inolako aldaketarik egin gabe.

Adjudikaziodunak nahitaez **bilduko ditu gaika papera, kartoia, beira, plastikoak eta informatikako kontsumigarriak/tonerrak** kontratuaren xede diren eraikin eta instalazio guztietan.

Horretarako, eskaintzan kasu bakoitzean beharrezkoak diren **ontziak instalatzea** aurrez ikusiko du, administrazioak zehazten dituen gidalerroekin bat etorriz. Gaikako bilketa hori kontratuko udaleko leku guztietan gauzatuko da. Gainera, Getxo Erronka 2028 ekimenean jatorrian % 55ean gaika batzeko helburua, bio-egonkortzaileak diren bilketa materialak erabiltzearena, material birziklagarriak erabiltzearena eta abar daude jasota.

Adjudikaziodunak ez du inolaz ere baimenik izango aurreko prozeduratik at edo, administrazioak idatziz jakinarazi ostean, ausaz zehazten denetik kanpo materialak merkaturatu edo suntsitzeko.

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 10. orrialdea, guztira 44

7.- AGIRI KONFIDENTZIALAK SUNTSITZEA

Adjudikaziodunak kudeatzaile baimenduaren bitartez agiri konfidentzialak suntsitu eta, ondoren, birziklatu egingo ditu, garbiketarako udal-arduradunak eskatu ostean. Kasu bakoitzean suntsitu eta birziklatzeari buruzko ziurtagiria egin beharko da.

Atal horren barnean daude, besteak beste, udal-instalazioetan egunero sortzen diren agiriak jaso eta suntsitzea eta Getxo udalerriko espazioetan gordeta dauden eta udal-sailetakoak diren agiriak jaso eta suntsitzea.
Agiriak suntsitzeko zerbitzuaren barnean bi zerbitzu-mota hauek egongo dira:

- HILEAN BEHIN bilketa programatua egitea. Itxitura duten edukiontziak jarriko dira gutxienez kontratu honetan jasota dauden 10 udal-eraikinetan.
- Bilketa PUNTUALAK. Bilketa eskatzen duen sailak esango du udal-langileek non utzi duten suntsitu beharreko dokumentazioa eta horrela bermatuko da kudeatzaile baimendunak jasoko duela zuzenean.

8.- EDUKIONTZI HIGIENIKO-SANITARIOAK INSTALATZEA ETA SORTUTAKO HONDAKINAK BILTZEA ETA BAKTERIOSTATIKOEN ETA AIRE-FRESKAGARRIEN ZERBITZUA

Emakumeentzako komunetan eta gizon nahiz emakumeentzako komun partekatu bakarra duten instalazioetan, baita etorkizunean egiten diren komunetan ere, edukiontzi higieniko-sanitario bana instalatu beharko da.

Adjudikaziodunaren kargura izango da edukiontziak instalatu, mantendu eta eramatea, hondakinak behar bezala tratatzearekin batera. Hala ere, gutxienez hilean behin berritu beharko da.

Eraikin-talde guztietan komunetan gaur egun instalatuta dauden edukiontzi higienikoen, aire-freskagarrien eta sistema bakteriostatikoen kopurua mantenduko da.

Zerbitzu hori, lehentasunez, bakteriostatikoen instalakuntzarekin emango da, eta hori posible edo gomendagarria ez denean, aire-freskagarri bat jarriko da komunen sarreran, Getxo Kulturako langilearen jarraibideak betez.

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 11. orrialdea, guztira 44

III. KAPITULUA: KONTRATUAREN DINAMIKA: ANTOLAKETA, HEDAPENAK ETA MURRIZKETAK ETA PRESTAZIOA EZINEZKOA IZATEA

9.- OHIKO LANAK ANTOLATZEA

Kontratu honetako eraikinetan eta instalakuntzetan egingo diren lanak barnean eta kanpoan egingo dira, besteak beste, honako hauetan: ikasgelak, bulegoak, aretoak, gimnasioak, liburutegiak, aholkularitza-bulegoak, lantegiak, korridoreak, atariak, komunak, sotoak, ganbarak, barneko patioak eta barneko eskailerak nahiz kanpokoak, etab., baita sukaldeak, berariaz zehazten diren eraikietako jangelak eta, laburbilduz, eraikina osatzen duten bestelako espazio guztiak.

9.1. MANTENTZE-GARBIKETAK: apaingarri, altzari eta osagarri guztietan egingo da, horiek aurreko instalazioetan badaude. Ildo horri jarraiki, II. eranskinean aipatutako bitarteko eta maiztasunekin egingo dira lanak.

Orientabide gisa, hauek dira elementuak: altzariak, argi-puntuak, ateak eta leihoak markoekin, janbak, kristalak, gortinak, pertsianak, komunak, komun ontziak, pixalekuak, dutxak, erradiadoreak, sabaiak, hormak, lurzoruak, alfonbrak eta moketak, metalak, eskaileretako karelak, esku-bandak, dekorazio-elementuak, barneko patioak eta eraikinei atxikitako espazio irekiak edo horietara sartzeko lekuak, besteak bestek, eskailerak, arrapalak eta abar.

Hala eta guztiz ere, eskaintza hobeto ulertu eta balioztatzeko, lizitatzaileak egokitzat jotzen duen informazio osagarri guztia aurkeztu ahalko du, hala nola edukiontzi higieniko-sanitarioen inbentarioak eta abar.

Nahiz eta izenak dagokion eraikin nagusiari erreferentzia egin, kontratu honen xedearen barne egongo dira udal-esparruaren barneko eraikinak.

Atal honen barruan udal-eraikin eta -instalazioetan (Elkartegia, Udaletxea, etab.) ekitaldi publikoen ondorioz eskatutako garbiketa sartuko da, astelehenetik ostiralera, **21:15 baino lehen.**

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 12. orrialdea, guztira 44

Eraikinetan mantentze-garbiketa egiteko, garbiketako langileek gutxienez makina bat eduki beharko dute zoruen gainazaletan aldian-aldian distiraraztekо, hala nola korridoreetan, atarietan, gune irekietan edo sarbideetan, eta ondoren mantentzeko.

RKE izeneko eraikinean, II. eranskinean – Garbiketa-maiztasunak – jasotakoaren arabera, bi garbiketa-metodo bereiziko dira:

- Sarrerako solairuko kristal guztiak (hilekoa) eta fatxadako barruko kristal guztiak -1etik 5era bitarteko solairuak- (bi hilean behin): sistema estandarra, errakleta eta pertikekin.
- Fatxadako kanpoko kristal guztiak (hiru hilean behin): garbiketa bertikaleko sistemaren bidez egingo da lana.

9.2. GARBIKETA OROKORRA: Garbiketa orokorrean mantentze-garbiketako lan guztiak gehi ondorengoen garbiketa hezea sartuko da: erradiadoreak, barneko pertsianak, itxiturak, altzariak goitik eta behetik, batez ere, aulkiak eta mahaiak, errotuluak eta idazkunak; horrez gain, aulki tapizatuak makinaz garbituko dira, zoruak desugertu eta distira ematearekin batera, altzariei, koadro eta elementu apaingarriei barne, sakonki distira emango zaie eta argi-puntuak kanpotik garbituko dira eta, oro har, arestian deskribatu ez diren elementuak garbituko dira.

Garbiketa orokorrean, aurreko guztiari, hurrengo eraikinetan ondorengo lanak gehituko zaizkio:

- Administrazio-eraikinen taldean eta ikastetxe publikoetan honakoak egin beharko dira gortinak eta gortina handiak garbitzean: muntatzea eta desmuntatzea, eraztunak jostea, kakoak ordezkatzea, heldulekuak aldatzea eta matxura txikiak jostea.

  Halako konponketak handiagoak direnean, aurrekontua egin eta ohiz kanpoko eta antzeko zerbitzu bezala ordainduko dira.
- Algortako musika-eskolan garbiketa horien barnean injekzio-ateratze makinarekin aulki tapizatuak garbituko dira.
- Kontratuak iraun bitartean, udan 1 (BEHIN) ikastetxetan lurzoruak desugertuko dira, leunketa kimikoa egingo zaie eta kristalizatu mekanikoa ere bai. Aurreko lanak korridoreetan eta espazio irekietan egingo dira, hala nola sarreretan eta atondoetan. Administrazio kontratatzaileak hautatuko du zein eraikinetan egingo diren.

Udako garbiketa orokorretan zeregin espezializatuenak barne egongo dira, hala nola leku altuak eta iristeko zailak diren eremuak garbitzea eta pertsianak garbitzea.

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 13. orrialdea, guztira 44

Aurrekoak langile espezializatuek egingo dituzte eta, gainera, hauek ere egin beharko dira: aulki tapizatuak garbitzea, alfonbrak, jostailuak eta koltxonetak garbitzea, gortinak eta gortinoiak garbitzea eta konpontzea, etab.

Gainerako eraikinetan garbiketa orokorra erabileraren araberako maiztasunarekin egingo da, hau da, zoruak, altzariak, hormak eta sabaiak garbi-garbi egon beharko dira, II. eranskinean jasota dagoen moduan. Lurzoruak garbitu edo desugertu behar badira, maiztasuna handiagoa izango da. Hala behar denean, garbiketa-lanak behar beste alditan egingo dira.

Garbiketa-lanak antolatzeko modua adjudikaziodunak erabakiko du, langileei, bitarteko materialei edo zerbitzua emateko gainerako alderdiei dagokienez, hain zuzen ere.

Adjudikaziodunaren ardura izango da garbiketa-lanak geletan dauden elementuetan egitea II. eranskinean aipatzen diren eraikuntzetarako maiztasunarekin.

Kontratistak lana makineria, bitarteko osagarri eta garbiketa-produktu egokienak erabiliz egingo du, bai parametroen egitura eta materialen ezaugarrien arabera, baita garbitu behar diren altzariak eta elementuak kontuan hartuta ere. Garbitzaileek beharrezko bitartekoak izango dituzte egoera onean, besteak beste, garbiketa-gurdiak, makina xurgatzaileak eta abar. Beraien kontura izango da lehenengoen mantentzea, konponketak eta ordezkatzeak barne, eta hori guztia, beti erabiltzeko baldintza onenetan egon daitezen. Horrez gain, makina xurgatzaileak ordezkatu beharko dituzte, hori egitea beharrezkoa denean.

Adjudikaziodunak **HILERO** egindako jardueren laburpen bat egingo du eta administrazio kontratatzaileari emango dio. Horrez gain, kontratuak iraun bitartean, administrazio kontratatzaileak hilero kontratuaren xede diren geletan eskatzen den maiztasunekin eta eska daitezkeen kalitate parametroen barruan garbiketak betetzen al diren ebaluatu ahalko du. Horretarako, plegu hauetan bitartekoak jaso dira.

Nolanahi ere, kontratistaren antolaketak honako irizpideak izango ditu:

a) Desinfektatu behar diren zonetan garbiketa arreta handiz egingo da eta goi-mailako desinfekzioa ziurtatzen duten prozedurak eta sistemak aplikatuko dira, bereziki, instalazio publikoak (nagusiki konketak, komunak eta dutxak), pertsona askok erabiltzen baitituzte.

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 14. orrialdea, guztira 44

b) Bulegoetan, geletan, halletan eta beste zona komun batzuetan mantentze-garbiketak egitean, itxura eta kalitatearen egoera egokia ziurtatu behar da, erabiltzaileek erabil ditzaten.

c) Zona komunak —besteak beste korridoreak eta atondoak— garbitzeko makina birakariak erabili behar dira, aldizka distirarazteko mantentze-lanak egiteko.

d) Zentroak egokitasunez garbitzeko bitartekoak erabiliko dira beti: garbiketa-produktuz eta tresnez betetako gurdiak, makinak, eskailerak, aldamioak eta abar.

e) Bulegoetarako, geletarako, hallerako, korridoreetarako eta beste zona komun batzuetarako bainuontzi eta dutxa, konketa nahiz harmailetarako erabili ez den materiala erabiliko da. Zapiak desberdinak izango dira kolorearen kodea erabiliz identifikatu eta modu batean edo bestean erabiltzeko.

f) Lanaldi bakoitzaren ondoren, garbiketarako material guztia behar bezala xahutuko da eta, xede horrez, produktu egokiak erabiliko dira.

g) Ebakuazio-bide bezala hartutako ateek eta korridoreek ez dute oztoporik (garbiketa-tresnak eta materialak) izango. Igogailuetan ez dira elementu horiek utziko, ohiko funtzionamendua saihesten badute.

h) Garbiketa-produktuak:

- Garbiketa orokorrerako desinfektatzaileak (lixiba, besteak beste) edo desinfektatzaileak dituzten produktuak erabiltzea debekatuta dago, komunetan eta zehazten den gainazaletan izan ezik.

- Eskaintzaileak zerbitzuan zehar erabiliko dituen produktuen zerrenda aurkeztu beharko du. Bakoitzaren kasuan, funtzioa edo aplikazio-gainazala (kristal garbitzailea, moketetarako, etab.), erabileraren dosifikazioa eta 255/2003 Errege Dekretuaren arabera segurtasun-fitxa zehaztuko ditu.

- Ontziek dosifikazio-aparatu zehatzak izango dituzte. Deskribapen teknikoaren arabera.

- Garbiketa-produktuek (desinfektatzaileak bezala kasu justifikatuetan izan ezik) I. motako eko-etiketa baten baldintzak beteko dituzte, hala nola zisne nordikoa, etiketa ekologiko europarra edo baliokidea, produktuaren formulazioan konposatu kimikoak izateari dagokionez eta/edo indarrean dagoen aplikatu beharreko legeriari dagokionez.

i) Eskuetarako papera eta WC papera jartzea eta sistema bakteriostatikoak eta haize-gozagarriak jartzea komunetan, II. eranskinean adierazitako maiztasunekin.

j) Eskuetarako xaboiaren irizpideak:

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 15. orrialdea, guztira 44

Eskainitako eskuetarako xaboiak ez du izan behar koloratzailerik, lurrinik eta agente desinfektatzailerik ezta klorurorik, enpresaren deklarazioaren eta segurtasun-fitxaren arabera.

k) Garbiketa-makinen tresnetarako irizpideak:
Garbiketa-zapiak eta mopa/lanbasak mikrozuntzekoak izango dira, hondakin gutxiago sortzeko eta ur nahiz bestelako produktu kimiko gutxiago kontsumitzeko.

l) Ontzien etiketak. Ontzi guztiak, bai kontzentratuak, bai diluituak, behar bezala etiketatuak egongo dira eta honakoak adieraziko dituzte:
- Produktuaren merkataritza-izena.
- Dituzten konposatu arriskutsuen piktogramak.
- Erabilera argibideak, batez ere, dosifikazioa.

9.3. Garbiketa orokorraren **IRIZPIDE GEHIGARRI** gisa, eta aurreko betebeharrekin bateragarria den osagarri moduan, protokolo propioa izan beharko du osasun-alertak gertatzean udaleko instalakuntzetan egin beharrekoak zehazteko, honako alderdietan eta Getxo Kulturan eta bertako langileen alde:

- Gutxieneko NBE elementuak langileentzat: iragazkidun FFP3 maskarak, lanerako arropa, aurpegirako pantailak eta eskularruak, hilabete baterako.
- Komunak garbitzeko gutxieneko elementu kontsumigarriak, besteak beste, detergenteak, poltsak, lanbasak eta baietak, 2 hilabeterako.
- Komunerako gutxieneko gai kontsumigarriak, besteak beste, kloratu gabeko xaboia eta gel hidroalkoholikoa, 2 hilabeterako.
- Iragazkidun FFP3 motako 1.00 maskara, Getxo Kuturak eskuragarri izan ditzan.

Albo batera utzita osasun-alertekin lotutako egoerak gertatzea, adjudikaziodunak higienizazio-plan bat garatuko du sistema espezifiko batekin, baita Covid-19 edukiontzietan edo antzekoetan gaika bildutako hondakinak jasotzeko ere, potentzialki kaltetu daitezkeen gelak garbitzeko, usainak kentzeko eta higienizatzeko, herritarrei arreta emateko geletako banaketa-manparak produktu espezifikoekin garbitzeko (beira edo metakrilatoa kaltetu gabe) eta abar egiteko moduak ere zehaztu beharko dira.
Materiala eta ekipamendua erabili ahala ordezkatzen joan beharko dira.

10.- URTEKO PREZIOA, HANDITZEAK ETA MURRIZTEAK, KONTRATUAREN ALDAKETAK ETA EZ-OHIKO GARBIKETAK.

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 16. orrialdea, guztira 44

Kontratistek beren eskaintzetan kontratuaren xedea osatzen duten ohiko lanak egiteagatik proposamen ekonomiko orokorra aurkeztuko dute. Aipatutako eskaintza urteko prezioa izango da eta V. eranskineko 1. atalean azalduko da.

Urteko prezio horretan oinarrituz, enpresak, eraikin edo instalakuntza talde bakoitzarentzat, metro karratu bakoitzeko prezioa (erabilera eguna) zehaztuko du. Prezio unitario horiek kontratuaren espazio-eremua handitzeko eta txikitzeko edo garbiketa-lanen maiztasunak aldatzeko erabiliko dira, eta eskatzaileak egindako urteko prezioa lortzeko kalkulutik zuzenean kendu beharko dira (VI. eranskina).

Era berean, ohiz kanpoko lanak egiteagatik garbiketa kostuari buruzko proposamen ekonomikoa aurkeztuko da, eskainitako jaitsieraren bidez. Kasu horretan, ez-ohiko garbiketaren orduko kostua kalkulatzeko, V. eranskineko 2. atalean jasota dagoen moduan, lizitazio-oinarriko taulan egindako beheranzko eskaintza aplikatuko da.

Eskaintza egiteko orduan kalkulu akatsak badaude, ez da prezioa aldatuko eta adjudikaziodunaren kargura izango dira zerbitzua eskaintzean akatsen ondorioz kostuak gehitzen badira.

Eskaintza ekonomikoetan laneko betebehar guztiak jasoko dira, besteak beste, lan hitzarmen espezifikoa betetzea, zergak, tasak eta abar.

10.1.- Espazio-eremua aldatzea: Garbitu beharreko azalerak gehitzea eta murriztea

Kontratua gauzatzen hasten denean, eraiki edo erosi berriak diren eraikinak, instalakuntzak edo gainerako lekuak eta administrazio kontratatzaile honen esku gelditzen den beste edozein, kontratuan sartu ahal izango dira, kontratua aldatuz.

Adjudikazioduna behartuta egongo da kontratuaren eremua zabaltzea onartzera, udal-eraikin eta -instalakuntza berriak barne hartu behar dituelako edo daudenak handitu direlako, baldin eta administrazio kontratatzaileak hori egitea hitzartzen badu, eta aurreikusita dauden edo ez dauden aldaketekin bat eginez.

Gela berrien (eraikinak, instalakuntzak, azpiegiturak, karpak, eta abar) garbiketa-kostua hileko ziurtagirian islatuko da. Hala eta guztiz ere, bakarrik kontratazio-organo eskudunak hedatzea onartzen duenean islatu ahal izango da.

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 17. orrialdea, guztira 44

Era berean, adjudikaziodunak kontratuaren espazio-eremua murriztea (behin-behinekoz edo behin betiko) jasango du, administrazio kontratugileak egokitzat jotzen dituen gelei eta instalakuntzei dagokienez.

Kontratuaren espazio-eremua handituz edo txikituz gero, kontratista adjudikaziodunak ez du kalte-ordainik jasoko, kontratuaren prezioa doitzea eta fakturetan islatzea baztertu gabe.

Aldaketen prezioa erabakitzeko, adjudikaziodunak aurkeztutako metro karratu bakoitzeko aleko prezioak hartuko dira aintzat (VI. eranskina), udal-eraikinetako multzoetako bakoitzerako.

Multzo bakoitzeko prezioa eraikin/instalakuntza bat handitzen bada edo eraikin/instalakuntza berria sortzen bada ordaindu beharreko prezioa izango da, metro karratuko.

Metro karratuko prezio hori II. eranskinean jasotako eraikinen multzoaren erabilera-egunekin eta haren azalerekin biderkatuko da, handitzearen prezioa erabakitzeko.

Eraikin edo instalakuntza bat udal-egoitza gisa erabiltzeari uzten bazaio eta hori beste erakunde edo erakunde publiko edo pribatu batek hartzen badu, kontratistak, Getxo Kulturraren laguntzaz eta bere koordinazioarekin, kudeaketa eta izapide egokiak egingo ditu, atxikitako garbitzaileak hartzaile berriari subrogatzeko.

10.2.- Aldaketak ezartzea jomuga/erabileran eta/edo garbitzeko azaleraren erabilera-mailan eta, ondorioz, garbiketaren maiztasunak aldatzea.

Eraikin edo instalakuntza baten erabilera aldatzen bada kontratua indarrean dagoen bitartean, kontratua aldatu egingo da, eraikin hori beste eraikin talde batean sartzeko.

Dauden eraikinen taldeetan kokatzea ezinezkoa balitz, prezio kontrajarriak finkatuko dira.

Aurreko kasuaz gain, eraikin edo instalazio batean kuantitatiboki areagotzen edo murrizten bada hasieran aurreikusitako erabilera, eta hasieran ezarritako maiztasuna ez bada egokia garbiketa-maila onena lortzeko, aldatu egingo dira hasieran adostutako edo kontratua hasteko unean zehaztutako maiztasunak. Ondoren, maiztasun berriak

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 18. orrialdea, guztira 44

ezarriko dira eta zehaztu egingo da aldaketa horiei dagokien prezioa (igo edo jaitsi egingo da).

Aldaketen prezioa finkatzeko, erreferentzia moduan hartuko dira adjudikaziodunak udal-eraikinen taldeetako bakoitzarentzat aurkeztutako metro karratuko prezioak (VI. eranskina), edo kontrako prezio bat zehaztuko da, lehen aukera posible ez denean.

Prezio kontrajarriak zehazteko, nolanahi ere, kontratu-prezioekin eta/edo merkatu-prezioekin parekotasun-irizpideak aplikatuko dira.

Zerbitzuak zabaltzeko kontratu-aldaketak (kontratuaren zenbatekoa gehituz) gertatzen direnean, giza baliabideak eta bitarteko materialak gehituko dira.

Bitarteko materialak edo giza baliabideak gehitu gabe zerbitzuak aldatzen badira, kontratuaren prezioa aldatzeko eskubiderik ez da egongo.
Adjudikaziodunaren eta langileen artean adostutako hitzarmen kolektibo berriak egiten badira edo aurrekoak aldatzen badira, ez dira eskainitako prezioak berrikusiko.

10.3.- Kontratua aldatzea ez-ohiko eta antzeko garbiketen atalean

Ez-ohiko lanen kontratuaren zatian (aleko prezioak), kontratua aldatzeko inguruabar espezifiko gisa aurreikusten da SPKLren hamahirugarren xedapen gehigarrian jasotakoa, hau da: kontratuaren indarraldian, benetako beharrak hasieran kalkulatutakoak baino gehiago izatea.

10.4.- Mugak

Edozelan ere, deskribatutako ustezkoetan izan daitezkeen kontratuen aldaketek ez dute gainditukо kontratuaren zenbatekoari, hau da, adjudikazio-zenbatekoari, dagokion % 10 (BEZa barne).

10.5.- Azterlan tekniko-ekonomikoa

Aurkeztutako eskaintzarekin batera, azterlan tekniko-ekonomikoa aurkeztuko da eta soilik eskaintzaren bideragarritasuna egiaztatzea izango du helburu.

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 19. orrialdea, guztira 44

Eskaintza sortzeko, plegu honen inbentarioan jasotako eraikin guztiak kontuan hartuko dira gehieneko okupazio-mailan, baita ere itxita dauden edo lizitazio-aldian erabili gabe dauden eraikinen eta lokalen kasuan.

Metro karratuko prezioa zehaztean, eraikin edo gela horretan dauden altzariak eta instalakuntzak, elementu arkitektonikoak eta dekoraziokoak kontuan hartuko dira.

10.6.- Zerbitzua eskaintzeko ezintasuna

Administrazio kontratatzailearekin zerikusirik ez duten gertaeren ondorioz, adjudikaziodunak zerbitzua Baldintzen Agirian eta kontratuan zehaztutako baldintzetan ezin dezakeela eskaini uste badu, berehala, administrazioari jakinaraziko dio, neurri egokiak har ditzan eta eraginpeko zerbitzu publiko desberdinen funtzionamenduan eragin ditzakeen kalteak ekidin edo murriztu ditzan. Neurriek sortzen dituzten gastuak zuzenean adjudikaziodunak ordainduko ditu, bai kalitatean, bai kantitatean prestazioak ez gauzatzeagatik, plegu honetan aurrez ikusten diren kenketak aplikatzea alde batera utzi gabe.

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 20. orrialdea, guztira 44

IV. KAPITULUA.- ADJUDIKAZIOADUNAREN BETEBEHARRAK ETA ESKUBIDEAK

11.- BETEBEHAR OROKORRAK

Zerbitzua agiri honetan adierazitako moduan eskaintzeko, adjudikaziodunak honako betebeharrak garatu eta betetzeko konpromisoa hartzen du:

1 – Zerbitzua behar bezala emateko nahikoa antolaketa tekniko, ekonomiko eta langileei lotutakoa izatea.

Eskaintzaren organigrama funtzionalaren edo egiturazkoaren barnean eta subrogatzeko eskubidea duten langileen zerrendatik kanpo, adjudikaziodunak administrazio-kudeaketak edo espediente digitalak (informatika-kudeaketak, adibidez, fitxatzeko sistema kontrolatzea, gorabeheren abisuak, arriskuak prebenitzeko agiriak eta mediku-azterketak, etab.) egiteko arduradun bat izendatuko du. Arduradun horrek kontratu honetako arduradun nagusiari lagunduko dio eta kontaktu zuzena izango da administrazio kontratatzaileak hala agintzen duenean.

2 - Behar bezala egiaztatutako ordezkari bat izendatzea, adjudikaziodunaren eta udal-zerbitzuen arteko harremanak bideratzen dituena. Bera izango da urteko egun guztietan eta eguneko 24 orduetan emango den arreta-zerbitzuaren arduraduna, eta hala, adjudikaziodunak, aipatutako ordezkariak behar dituen laguntzaileak ere izendatuko ditu.

3.- Subrogatzeko, administrazio-baldintzen pleguan eta Bizkaiko eraikin eta lokalen garbiketa-sektorerako hitzarmen kolektiboan xedatutakoari erreparatuko zaio, eta HILEAN BEHINGO txostenean jakinarazi beharko da kontratuko langileen zerrendaren egoera.

4.- Administrazio kontratatzaileari HILEAN BEHIN kontratu-aldaketa guztien berri ematea. Halaber, kontratuaren xede diren zentroei atxikitako langileen gehikuntzak eta murrizketak jakinaraztea, 3. puntuan adierazitakoarekin lotuta.

Hori guztia beharrezko aurrerapenarekin egin beharko da, administrazioak bere gogoetak jakinarazteko hori egitea egokitzat jotzen badu.

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 21. orrialdea, guztira 44

5.- Eskaintzan zehaztutako giza baliabide eta bitarteko mekanikoekin zerbitzua gauzatzea eta kontrol- nahiz zaintza-jarduerei dagokienez, administrazio kontratatzailearekin lankidetzan jardutea, baita jarduera horiek onartzea ere, bai kantitateari, bai kalitateari buruz, baita ere egoera ohikoetarako eta ez-ohikoetarako, besteak beste, osasun- alertak, fenomeno atmosferikoak eta abar.

6.- Administrazio kontratugilearen eskura giza baliabide eta makineria guztia jartzea, beharrezkotzat jotzen duten gorabehera bereziak, premiazkoak, alarmakoak edo salbuespenezkoak gertatzen direnean.

7.- Betiere administrazio kontratugileak eskatzen badio, hurrengo arloetan eginbeharrak betetzen dituela egiaztatu eta justifikatzea: zergak, lan-eremua, gizarte-segurantza, lan-segurtasuna, etab. Xede horrez, adjudikaziodunari eska dakizkiokeen dokumentazioa edota frogagiriak erakutsiko ditu.

8.- Plegu honetan ezarritakoa gorabehera, adjudikaziodunari hauei buruz modu espezifikoan eska dakiokeen informazioa ematea: lan-prozesuak, egindako lanak, denbora, taldeen eraketa, langileen ordezkapenak eta abar.

9.- Adjudikaziodunak prozedura, material, produktu, saiakuntza eta abarri buruz Udal Sail eskudunak eskatzen dizkion txostenak eta azterketak aurkeztu beharko ditu, noski, egin beharreko lanekin zerikusia badute.

10. – Kontratu honek irauten duen bitartean, adjudikaziodunak Getxo udal-mugartearen barnean zerbitzuari laguntzeko azpiegitura gisa izan beharko du gutxienez 20 m2-ko azalera erabilgarria duen lokal bat. Gutxienez biltegi, aldagela eta txukuntasun-zona gisa egokituta egon beharko da. Kontratu honetako plantillako langileentzat eta logistikarako erabiliko da.

11.- Zentro bakoitzeko arduradunari langileek lanean aurki ditzaketen ala kontratuaren eremuko lokal eta/edo geletan egon daitezkeen objektuak entregatzea.

12.- Adjudikaziodunak HILEAN BEHIN txosten bat aurkeztuko du honako hauek azalduz:

- Produktuen erabilitako kantitateen balantzea (txostenari dagokion denbora tartean), kontsumoa monitorizatu eta dosiak kontrolatzen joateko. Ildo horri eutsiz, ahal den neurrian murriztuko dira, betiere finkatutako garbiketa-estandarrak mantentzen badira.

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 22. orrialdea, guztira 44

- Jasotako hondakinen eta edukiontzien erabilera-mailaren estimazioa; hilabeteen arabera zehaztuko da, hondakinen ekoizpena eta gaikako bilketa monitorizatu eta, bide batez, sistema hobetzen joateko.

12.- MATERIALA ETA MAKINAK

Adjudikaziodunaren kontura izango da garbiketa-tresna eta -material guztien nahiz makineriaren hornidura-zerbitzuak eskaintzeko. Bitarteko horiek guztiak lehiaketa honetako zerbitzuak betetzeko bakarrik erabiliko dira ohiko lanak eta ez-ohikoak edo laguntza-lanak egiteko, eta bitarteko horiek ezin izango dira beste kasu batzuetan erabili, kontratuaren udal-arduradunak horretarako berariazko aginduak eman ezean.

Ura eta energia elektrikoa zerbitzua eskaintzeko beharrezkoak badira, administrazio kontratugileak doan eskuratuko ditu.

Kristalak garbitzeko ainguraketak, segurtasun-sokak edo antzekoak behar diren eraikinetan, administrazio kontratatzaileak jarriko ditu. Posible ez bada, plataforma jasotzaileak edo beste sistema batzuk erabili beharko dira aipatutako lana egiteko eta aplikatzekoak diren segurtasun-arauak, makinak eta materialak errespetatuko dira eta enpresa adjudikaziodunaren kargura izango dira.

13.- MATERIALAREN ESKURAGARRITASUNA

Kontratistak etengabe zerbitzua eskaintzeko materiala eskura izan beharko du. Beraz, bidezkotzat jotzen dituen erreserba-ekipoez hornituko da eta informazio hori eskaintzan adierazi beharko du. Horretarako, hauek egin beharko ditu.

- Proposatutako erreserba-plana eta material-multzoa, kontratu honetarako.

14.- ETENGABEKO ARRETA

Adjudikaziodunak deien etengabeko arreta-zerbitzua (telefonoa) izango du eta, aldi berean, etengabeko harremana mantenduko du egunero Getxo Kulturaren Zerbitzu Tekniko eskumendunarekin, horretarako Getxo Kulturak adierazten duen teknikariaren bitartez.

Honako hauek egiteko beharrezko telefono, mezu elektroniko eta irrati-bitartekoak izan beharko ditu:

- Udaleko arlo eskudunaren eta enpresa adjudikaziodunaren arteko komunikazioa bermatzea.

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 23. orrialdea, guztira 44

- Halaber, zerbitzuari atxikitako ibilgailuekin eta askotariko eginkizunen arduradunekin lotura izan beharko du.

Enpresa adjudikaziodunak honako hauek egin beharko ditu urteko 365 egunetan 24 orduko arreta zerbitzua emateko:

- Kontratuaren arduradunarekin kontaktua izateko bideak ematea.
- Aipatutako arduradun nagusiaren laguntzaileekin bestelako harreman-bideak ematea (txandak betetzea, jaiegunak, lanera ez joateak, oporraldiak...).

15.- KONTRATISTAREN ESKUBIDEAK

Adjudikaziodunak, legez dagozkionez gain, honako eskubideak izango ditu:

1.- Administrazio kontratugilearen kargura, eraikinek dituzten uraren, argiaren eta energiaren (indarra) hornidurak jasoko ditu, zerbitzuak gauzatzeko beharrezkoak diren kantitateetan.

2.- Bere borondatearekin zerikusirik ez duen arrazoiarengatik, arestian aipatu den edozein elementuren hornidura ez duelako adjudikaziodunak ezin baditu zerbitzuak egin, erantzukizunez salbuetsiko zaio, ez baldin bada plangintza desegokitzat edo funtzioen uztetzat eta/edo erantzukizun uztetzat jotzen.

3.- Agiri honen xedapenen arabera, dagokion hileko zenbatekoa jasoko du legeak aipatutako epeetan.

16.- LANGILEEN KONTRATUEN BALDINTZAK

16.1.- Langileen prestasuna

Enpresa adjudikaziodunak beharrezko langileak izango ditu, bai kopuruari, bai prestakuntzari dagokionez, Baldintzen Agiri honetan zehaztutako lanak egiteko.

Egungo plantilla nahikoa da bukatu den kontratuan ematen ziren ohiko lanak egiteko. Horregatik, adjudikaziodun berriak langile guztiekiko zeuden lan-obligazioak errespetatu eta mantendu beharko ditu (III. eranskinean jasota daude).

Zerbitzua hobeto eskaintzea helburu izanik, administrazio kontratugileak eraikin batzuetarako gutxieneko bitartekoak zehazten ditu, zenbait eraikinentzako gutxieneko betekizun bat betetzeko derrigortasunarekin.

Xede horrekin, asteko gutxieneko ordu-kopurua ezarri da, eta kopuru hori bete beharko du, honela:

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 24. orrialdea, guztira 44

Eraikinak: Taldea **Gutxieneko orduak asteko**

A.1 taldea.- RKE edifizio osoa…… 165 ordu

Langile subrogatuen kontratuekiko ordu-kopurua handiagoa izatea ez da inolaz ere arrazoia izango eskatutako ordu-kopurua murriztu edo ez betetzeko.

Lanaren arrazionalizazio- eta optimizazio-arrazoiak kontuan hartuz, enpresako langile batek lanaldi osoa zentro batean egin ezin duenean, joan-etorriek sortutako kalteak gutxitzeko, enpresa adjudikaziodunak ahalegina egingo du langileak beraien artean hurbil dauden zentroetan lan egin dezan.

Gainera, zerbitzuaren kalitatea hobetzeko, enpresa adjudikaziodunak langileen behin-behinekotasuna ahalik eta gutxienera murriztuko du, behin-behinekotasuna bakarrik inguruabarrek hala justifikatzen dutenean gertatuko delarik, zeren eta langileak maiz txandakatzeak zerbitzua kaltetzen baitu.

Ez-ohiko lanak egiten direnean, enpresa adjudikaziodunak langile berriak kontratatuko ditu edo kontratu horretan aktibo dauden edo adjudikaziodunarentzat lan egiten duten langileen lanaldiak zabalduko ditu eta ahal den heinean aparteko orduak ordaintzea ekidingo du.

Aurrekoa antzeko lanak egiten direnean ere aplikatu egingo da. Kasu bietan, enpresa adjudikazioduna izango da beti zerbitzu horietako langileen eta azpikontratazioak eginez gero, beste enpresetako langileen arduraduna.

Getxo Kultura enpresa adjudikazioduneko langileekin ez du inolako harreman juridiko, laneko edo beste era batekorik izango kontratuak iraun bitartean eta hura amaitzen denean.

Adjudikaziodunak ezingo du aitzakia bezala jarri langilerik ez duela eskainitako zerbitzuak ala zerbitzu berezien kasuan administrazio kontratugileak berariaz agintzen dizkionak eten edo atzeratzeko, betiere, Getxoko administrazio kontratugileak eskaera nahikoa aurrerapenez (48 ordu) egiten badu. Hala, une oro gauzatzeko langileak izango ditu. Dena den, langileen hornidura handia eskatzen duten horiek aurrerapen gehiagoz jakinarazi beharko dira.

16.2.- Aurreko kontratuko langileak

Bizkaiko eraikinen eta lokalen garbiketaren sektorerako indarreko hitzarmen kolektiboak xedatutakoa betez, III. eranskinean langileen zerrenda eransten da. Horiek

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 25. orrialdea, guztira 44

dira, hain zuzen ere, gaur egun kontrataren bitartez garbiketa-zerbitzuak eskaintzen ari direnak. Aipatu zerrendan hitzarmenak 28. artikuluan aipatzen duen informazio xehatua dago.

Era berean, adjudikaziodunak uzten duen kontrataren langileak subrogatu beharko ditu, barnealdeak garbitzeko zerbitzuan badihardute adjudikazioa egiten den unean. Aurrekoa urratzen bada, zehapena ezarriko da.

16.3.- Kontratu berrian sartuko diren kontratazio berriko langileak

III. eranskinak, subrogazioaren mende dauden langileen zerrendarekin, aurreko kontratuan zerbitzuak eman dituzten garbitzaileak jasotzen ditu; beraz:

- RKE eraikinean astean gutxienez 165 ordu betetzeko, eraikin horretan lan egiten duten garbitzaileen lanaldia astean 5 ordu luzatu beharko da.

- Kristalak garbitzeko maiztasunak betetzeko, enpresa esleipendunak kontratazio berri bat egin beharko du lanaldi osoko peoi espezialista bat (UN) sartzeko – kristala –.

16.4.- Lanen hasierako langileen zerrenda

Adjudikaziodunak, kontratua sinatu eta 5 (BOST) egun baliodunetan eta lanen hasiera-akta egin baino lehen, zentroko langileen zerrenda aurkeztuko du langile bakoitzaren hurrengo datuekin: izena, NANa, kategoria, antzinatasuna eta kontratu mota.

16.5.- Langileak aldatzea

Kontratuaren indarraldian, kontratuaren jatorrizko plantilla aldatu behar bada (erretiroak, heriotzak, borondatezko bajak, kaleratzeak, aldi baterako ezintasunak, etengabeko ezintasunak eta abar direla-eta) edo zerbitzuaren beharrengatik aldaketaren bat balego, adjudikaziodunak nahitaez udal-zerbitzuei idatziz jakinaraziko die. Jakinarazpen horretan, ordezkoaren edo ordezkoen datuak adierazi beharko dira (aurreko artikuluan adierazi direnak).

Kontratua formalizatu eta gero, gehienez ere 2 (BI) hilabeteko epean adjudikaziodunak administrazio kontratatzailera sinatutako eta zigilatutako ziurtagiri bat bidali beharko du. Bertan jasota egon beharko da irizpide objektiboen (prestakuntza, esperientzia, etab.) zerrenda garrantzia-ordenaren arabera antolatuta. Irizpide horiek aplikatuko dira kontratuak iraun bitartean langileak ordezkatzeko.

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 26. orrialdea, guztira 44

Behin betiko plaza hutsak edo urtebeteko edo gehiagoko lanpostu hutsak (eszedentziak, erretiroak edo behin betiko bestelako bajak, etab.) betetzeko kudeaketak nahitaez egin beharko dira Getxoko Lanbideren bulego batean.

Ordezkapen oro, gutxienez, prestakuntza bera duen langilearekin eta ordezkatuak zuen lanaldian eta ordutegian egingo da; aurrekoak betetzen ez badira, dagokion zehapena ezarriko da.

16.6.- Hedapenak eta murrizketak, langileak gehitu edo gutxitzea

Arrazoi justifikatuengatik (hala nola kontratuaren eremua zabaltzea) eskaintzan aurkeztutako langile-kopurua gehitu behar bada, adjudikaziodunak aldez aurretik beharra justifikatzeko azterketa edo txostena egingo du eta bertan, langile eskuragarrien antolaketa ezin dela arrazionalizatu egiaztatuko da.

Langileen gehikuntza ez da bereizi gabe egingo; hala, eskaintzan proposatutako zerbitzuaren magnitudeari edo prestazioei erreparatuko zaie. Dena den, udal-zerbitzu teknikoek ontzat eman beharko dute.

Ikastetxe edo udal-eraikin berriak sortzen badira edo daudenak ixten badira, garbiketa-zerbitzuan handitzeak edo gutxitzeak egin ahal izango dira.
Langile-kopurua gehitzeko hurrengoak zehaztuko dira:

- Lehenik eta behin, udaleko zerbitzu teknikoek eta enpresa adjudikaziodunak egindako eraikinaren garbiketa-programa.
- Bigarrenik, beharrezko bitartekoen eta ezarritako metro karratu bakoitzeko kostuaren arabera, handitzeari dagokion urteko aurrekontua kalkulatuko da.

Ikastetxeren bat ixtea aurrez ikusten denean, enpresa adjudikaziodunari jakinaraziko zaio.
Aurreko kasuren bat gertatuz gero, eraginpeko zentroei atxikitako langileak beste zentro edo lokal batera eraman daitezke eta, ondorioz, langileen mugikortasun funtzionalaren kasua gerta liteke, betiere, indarreko legeria beteta.

16.7.- Jantziak eta identifikazioa

Zerbitzuetako langile guztiek uniformea jantzi beharko dute. Langileen jantzien kalitatea eta kantitatea zehazteko, une oro hitzarmen kolektiboetan eta laneko segurtasun eta higieneari buruzko araudian erabakitakoari erreparatuko zaio.

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 27. orrialdea, guztira 44

Zerbitzuak eskaintzeko erabiltzen diren langile guztiak ezin hobeki uniformatuak egongo dira, Getxo Kulturak aurretiaz onartutako ereduarekin bat etorriz. Adjudikaziodunak zirriborroa aurkeztuko du langileentzat proposatzen dituen uniforme-motekin.

Langile oro identifikazio-txartelaren bitartez ezin hobeki identifikatuta egongo da; horretarako, udal-lokaletan dirauen bitartean beti ikusten den tokian eramango du, zerbitzuen segurtasunerako.

Txartelak enpresaren eta administrazio kontratugilearen anagramak izango ditu, eta izenarekin eta argazkiarekin langilea identifikatuta egongo da. Adjudikaziodunak langile guztiei emango die txartela.

Sarrerak kontrolatzeko protokoloa ezarrita duten udal-eraikinetan, garbitzaileek eraikin horretarako ezarritako identifikazio-sistema bete beharko dute baita ere, besteak beste, NANa aurkeztea, etab.

Kontratatutako langileak ez dira eroriko langile publikoak edo administrazio publikoetako langileak ezgaitzen dituzten kausetan.

Getxo Kultura ahala izango du aurrekoa egiaztatzeko, eta aurreko kausaren bat gertatzen dela edo segurtasuna kaltetu dezaketen arrazoiak daudela egiaztatzen badu, 7/2021 Lege Organikoan jasotako prebentzio- eta ikerketa-eginkizunak betez, adjudikaziodunari eskatu ahal izango dio langilea, edo hala badagokio, bere lanpostua aldatzeko.

16.8.- Langileen segurtasuna eta erantzukizun zibila

Adjudikaziodunak bere kargura dituen langileak behar bezala aseguratuak izango ditu, laneko eta gizarte-segurantzako zuzenbideari buruzko indarreko araudiarekin bat etorriz.

Bestalde, erantzukizun zibilaren aseguru-polizak sinatu behar ditu, lanak egitean hirugarrenekiko eta administrazio kontratatzailearekiko kalteak ordaintzeko. Estaldura adjudikazio-zenbatekoaren % 15ekoa izango da.

Erantzukizun zibilaren aseguruak zerbitzuak gauzatzearen eta kontratuko betebeharrak oro har garatzearen ondorioz hirugarrenei egin dakizkiekeen kalteen

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 28. orrialdea, guztira 44

truke eska dakizkiokeen zuzeneko eta zeharkako kalte guztiak erreserbarik gabe aseguratzeko zenbatekoa izango du.

Adjudikaziodunak honakoak emango dizkie langileei:

- Banakako eta taldeko babes ekipoak emango dizkie, jardueraren ondoriozko arriskuen aurrean langileen segurtasuna lortzeko.

Hori guztia, kontratua bete aurretik aurkeztu beharreko Segurtasun eta Osasun Planarekin bat eginez egingo du. Plan hori, gainera, Getxo Kulturak onetsi beharko du eta, horretarako, aurretiaz udaleko segurtasun- eta osasun-koordinazioa gauzatzen duenak edo hark kanpoan kontratatutako eskuordetuak, adostasun-txostena egin beharko du.

16.9.- Langileen garbitasuna eta begirunea

Adjudikaziodunak zaindu beharko du langileen garbitasun edo begirune eza, uniformea jantzita izatea edo kontratuaren barruko eraikinetan erabiltzaileek duten oieskeria edo tratu desegokia (langileek antzemandakoa) eta analogiaz Bizkaiko Eraikinen eta Lokalen Garbiketa Sektorearentzat Hitzarmen Kolektiboan jasotako gainerako huts-egiteak. Gertaera horiek medio, plegu honetan ezarritako zigorrak jarri ahal izango dira.

16.10.- Kontratua gauzatzean hirugarrenei sortutako kalteengatiko kontratistaren erantzukizuna eta aseguruak

Zerbitzua gauzatzerakoan adjudikazioduna arduratuko da edozein pertsona, jabetza edo zerbitzuri, publikoa nahiz pribatua izan, egin dakizkiokeen kalte-ordain guztiez, haren kargura dauden langileen ekintza, hutsegite edo arduragabekeriak medio edo antolakuntza, babes edo zerbitzuaren seinaleztapen kaskarra izatearen ondorioz.

16.11.- Segurtasuna, higienea eta zerbitzu medikoak Langileen prestakuntza

Adjudikaziodunak lanean segurtasunaren eta osasunaren arloan indarreko xedapenak zorrozki bete beharko ditu, eta beharrezko zerbitzu medikoak eskaini ere bai.

Lan arriskuen prebentzioaren arloan indarreko araudiari erreparatuko zaio.

16.11.1.- Kontratua sinatu eta gero, gehienez ere 1 HILABETETAN kontratistak nahitaez hauek aurkeztuko ditu administrazio kontratatzailean:

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 29. orrialdea, guztira 44

- Laneko arriskuen ebaluazioa.
- Kontratu honetarako eraikinak eta lokalak garbitzeari dagokion prebentzio-jardueraren plangintza.
- Segurtasun- eta osasun-plana.

Kontratistak kontratuaren xede den jardueraren arriskuak jakinaraziko ditu, administrazio kontratatzailearen langileei eragiten badie.

Kontratua hasi aurretik adjudikaziodunak solaskidearen berri emango du. Lanaren segurtasunari eta osasunari buruzko jarduerak koordinatzeko, bera arituko da administrazio kontratatzailearekin segurtasun- eta osasun-solaskidearen funtzioetan. Plan hori aurretik adierazitakoarekin bat eginez onetsiko da.

Kontratuaren xede diren jarduerak egiterako orduan, lan-baldintzei dagokienez, administrazio kontratugileak egokitzat jotzen dituen egiaztapenak egiteko eskubidea gordetzen du, eta kontratistari indarreko lan-arriskuen prebentzioari buruzko araudia egiaztatzen duen dokumentazioa eska diezaioke.

16.12.- Adjudikaziodunaren bestelako obligazioak

1.- Adjudikaziodunak, lanaldia nahitaez erregistratzeko eta bere langileen ordutegiak kontrolatzeko, presentzia- edo fitxaketa-sistema bat izango du, eta sistema horrek eguneroko lan-jarduera erregistratuko du eta informatizatuta egon beharko da.

2.- Ordainsarien, gizarte-segurantzaren, lan-istripuen, lan- puntualtasunaren, prestakuntzaren, segurtasun eta higienearen eta abarren eremuetan, adjudikaziodunak indarreko legeriak zehazten dituen lan-eginkizunak bete beharko ditu.

HILEAN BEHIN honakoak aurkeztuko dizkio enpresa adjudikaziodunak administrazio kontratatzaileari:

- Bere lan-kontratazioaren justifikazio-txostena eta bajan dauden eta horiek ordezkatzen dituzten langileen zerrenda, zentroen arabera banatuta, enpresa adjudikaziodunak sinatuta eta zigilatuta.

- Langileen Zerrenden agiriak, erakunde ordaintzaileak egiaztatuta, ordainketaren ziurtagiriarekin batera.

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 30. orrialdea, guztira 44

3.- Grebaren kasuan, enpresa adjudikaziodunak ezinbesteko gutxieneko zerbitzuak berma daitezen konponbidea eskaintzeko konpromisoa hartzen du. Halaber, greba amaitzen denean, garbiketa berezien programak antolatuko ditu, eperik laburrenean ohiko garbiketa-egoera berreskuratzeko, baina administrazio kontratugileak ez ditu ordainduko.

Horiek betetzen ez badira eta pleguetan jasotakoak urratzen badira, administrazio kontratugileak zehapenak ezartzeko eskumena izango du edo, hala badagokio, kontratua suntsitu ahal izango du.

4.- Adjudikaziodunak nahitaez bete behar ditu kontratua betearazteko baldintza bereziak, hau da, Sektore publikoaren kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 202. artikuluan eta ABPn jasotakoak beteko ditu, plegu honetako 29. puntuan jasota daudenak.

17.- KONFIDENTZIALTASUNA

Adjudikazioaren publizitateari eta hautagaiei eta lizitatzaileei eman behar zaien informazioari buruzko SPKLren xedapenak albo batera utzi gabe, konfidentzialtzat jo ahal izango dute eskaintzak egitean ematen duten informazioaren zati bat, bereziki, sekretu teknikoak edo komertzialak eta eskaintzen isilpeko alderdiak. Kontratazio-organoak ezin izango du informazio hori hedatu hautagaien edo lizitatzaileen baimenik gabe.

Era berean, adjudikaziodunak gorde beharko du kontratua betetzean eskura dezakeen informazioaren konfidentzialtasuna, baldin eta baldintza-agirietan edo kontratuan izaera hori eman bazaio informazio horri, edo, informazio mota dela-eta, halakotzat jo beharrekoa bada.

Adjudikaziodunak zaindu beharko du kontratu honetako langileek udal-eraikinak edo instalazioak garbitzen dituztenean eskuratu dezaketen informazioaren konfidentzialtasuna errespetatzen dutela.

Lizitazio honetan erakunde adjudikaziodunak datu pertsonalak eskuratuko ditu. Horien tratamenduaren arduraduna Getxo Kultura da, eta bera izango da, beraz, tratamenduaren karguduna. Kasu horretan, datu horietarako sarbidea ez da hartuko datuen komunikaziotzat, baldin eta DBEOren 28. artikuluan aurreikusitakoa betetzen bada.

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 31. orrialdea, guztira 44

Datuen babesaren arloko eskakizun eta jarraibide zehatzak administrazio klausula berezien pleguan eta plegu hauetako “Datu pertsonalen tratamendua” eranskinean jasota daude. Erantzukizunpeko adierazpena sinatu beharko du adjudikaziodunak kontratua betetzen hasi aurretik.

18.- ADMINISTRAZIOAREN AHALAK: PARTEAK, IKUSKARITZAK ETA KALITATEA

18.1.- Eguneroko parteak

Getxo Kulturak-ikuskaritzaz eta -zaintzaz gain, adjudikaziodunak eguneko parteak izango ditu eta honakoak agertuko dira: langileak, bitarteko materialak eta izandako gertaerak, hori guztia behar bezala informatizatua eta lan-zentro bakoitzeko.

Administrazio kontratatzaileak, plegu honetako lanen emaitzen berri izateko, beste neurri batzuk ezarri ahalko ditu eta horietan jasoko dira anomaliak eta gorabeherak, eta tresna horiek baliagarriak izan beharko dira eta adjudikaziodunari plegu honetako eta ekonomia- eta administrazio-baldintzen pleguan jasotako zehapenak aplikatu behar bazaizkio.

18.2.- Kalitatea kontrolatzea

Administrazio kontratatzailearen ahalmena da garbiketa-zerbitzuen gainean etengabe kalitatearen kontrola eta ikuskaritza gauzatzea, bai langile propioekin, bai xede horretarako kontrata daitezkeen bitartekoen bitartez.

Kontrolen helburua agiri honetan eskatutako baldintzekin bat etorriz, prestazio egokia lortzea da. Bitan laburbildu daitezke:

A) Garbiketa-zerbitzuaren egiazko kalitatea lortu eta mantentzea.
B) Erabiltzaileari konfiantza azaltzea, eskainitako zerbitzuan desiragarria dena lortzen ari dela adierazteko.

Kalitate-araubide bat dago, UNE-EN-ISO-9001 izenekoa, eta bertan, sistemaren elementu batzuk definitzen dira eta funtzionamendurako oinarrizko irizpideak zehazten dira, adjudikaziodunak erabili beharko dituenak.

Era berean, kontratua betetzean ingurumen-kudeaketako praktika onak modu sistematikoan aplikatzen direla bermatzeko, SGA ziurtagiria dago garbiketa-zerbitzuarentzat (EMAS, ISO 14.001, Ekoscan edo baliokidea); edo lan-prozedura eta

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 32. orrialdea, guztira 44

jarraibideak izan beharko ditu laneko osasuna eta ingurumena babesteko, gutxieneko baldintza gisa.

18.3.- Kontrol-sistemak

Zerbitzuak betetzen direla egiaztatzeko, prestazioen kontrol-sistemak antolatuko dira. Aldizkakotasuna administrazio kontratugileak beharrezkotzat jotzen duena izango da, eta hurrengo alderdietan oinarrituko da:

- Jardueren kontrola.
- Garbiketa-mailaren ebaluazioa.

Eskaintzaileek beste kontrol-modalitate batzuk proposatu ditzakete, eta bidezkoak izanez gero, administrazioak proposamen teknikoan kontuan har ditzake.

18.3.1.- Jardueren kontrola

Helburua agirian xedatutako prestazio teknikoen betetze-maila egiaztatzea izango da, maiztasunei eta lanak egiteko moduari dagokienez.

Aurreikuspenak enpresa adjudikaziodunaren arduradunekin batera egingo dira, eta administrazio kontratugileak gauzatzen dituen jarduerei buruzko kontrol-orriak beteko dira.

A) Kontrola edozein unetan egin ahal izango da, Getxo Kulturak eskatuta, arrazoizko zalantzak edo arrasto nabariak planteatzen direnean langileak, makineria eta materialak faltatzeari edo kalteak izateari buruz.

B) Aurreko artikuluan bezala, eskaintzaileek “jardueren kontrol-orriaren” mota proposa dezakete.

Kontratu honen indarraldian zehar, administrazio kontratugileak ordenagailu bidezko mantentze-sistema bat ezarri ahal izango du. Bertan, eguneroko garbiketa-lanak jaso ahal izango dira, baita ere zerbitzuaren kontrolerako egokitzat jotzen diren intereseko gainerako datuak. Adjudikaziodunak lagundu egin beharko du kontrol-sistemaren kudeaketa- eta funtzionamendu-lanetan.

18.3.2.- Garbiketa-maila ebaluatzea

Getxo Kulturako zerbitzu teknikoek adierazitako maiztasunarekin egingo da, baita ere etengabe akatsak egiten direnean edo erreklamazioen liburuan horrelakoak jasotzean, zentroko zuzendariak edo haren ordezkariak idatzita eta sinatuta.

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAUEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 33. orrialdea, guztira 44

Gela desberdinen laginketaren bitartez bertan ikuskatzeari ekingo zaio, garbiketa-maila zehaztu eta puntuak emateko honako sailkapenaren barruan:

*Oso ona: Aztertu diren gelak ordena- eta garbitasun-egoera ezin hobea adierazten dute, orban, usain, hauts edo bestelako zikinkeria-arrastorik gabe, zoruan distira ikusten da eta kristalak edo desordena eta zikinkeriarekiko sentiberagoak diren beste elementu batzuk garbiak daude. 9 eta 10 punturen artean emango zaizkio.

*Ona: Aztertzen diren gelek ordena- eta garbitasun-egoera ona dute, baina aurreko mailara iritsi gabe. Orban, usain, hauts edo bestelako zikinkeria-arrastorik ez dago, nahiz eta aditu batek edo pertsona zorrotzak urritasun-guneak hauteman. 7 eta 8 punturen artean emango zaizkio.

*Onargarria: Aztertzen ari diren gelek ordena- eta garbitasun-egoera onargarria dute. Edozein pertsonarentzat orban, hauts edo bestelako zikinkeria-arrasto arin, puntual eta nabariak daude, baina beren erabileren ohiko garapena eragotzi gabe. 5 eta 6 punturen bitartean balioetsiko da.

*Urria: Aztertutako gelek ordena- eta garbitasun-egoera urria dute eta aurreko mailarekin erkatuz, orbanak, usainak, hautsa eta bestelako zikinkeria-arrastoak orokortuak daude, erraz hautematen dira eta ohiko jardueretan aritzeko gogaikarriak izan daitezke. 3 eta 4 punturen bitartean balioetsiko da.

*Oso urriak: Aztertzen ari diren geletan ordena eta garbitasuna erabat urriak eta gainazal guztietan txarrak dira. 0 eta 2 punturen bitartean balioetsiko da.

18.4.- Kalitate-aktak

Balioztapena administrazio kontratugileak agindutako arduradunak egingo du eta, xede horrez, ikuskaritza-ibilbideak jarraituko ditu. Bertan, ikuskatu behar diren gelak edo lokalak egongo dira.

Ikuskaritzen ondorioz kalitate-aktak idatziko dira eta kalitate txostenean laburtuko dira. Gutxienez hurrengo datuak izango dituzte:
1. Zona bakoitzaren garbitasun-maila eta azkenean egindako balioztapena.
2. Hautemandako anomaliak, horien larritasuna eta arrazoiak.
3. Ezarri beharreko neurri zuzentzaileak eta horiek gauzatzeko konpromisoa nahiz epeak.
Kalitate-aktak udal teknikariak eta enpresa adjudikaziodunaren ordezkariak sinatuko dituzte. Azkenekoari idatzitako aktaren kopia bat emango zaio.

Balioztotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 34. orrialdea, guztira 44

18.5.- Kalitate-aktarekiko desadostasuna.

Adjudikazioduna edo ordezkaria ikuskaritza- eta kontrol-bisitan ez badago eta akta funtzionarioak eta zentroko zuzendariak edo eskuordetzen duenak sinatzen badu, lehenengoak ezingo du erreklamaziorik egin aktaren kopia jasotzen duenean.

Enpresa adjudikazioduneko ordezkaria bertan egonda, ondorio guztiekin edo batzuekin desadostasuna badago, zerrendatu eta desadostasuna aktan idatzita geldituko da. Hasieran funtzionarioak finkatutakoa nagusi izango da, bereziki, ziurtagiriaren zenbatekoan kenketa eragiten duten zigorrei dagokienean.

Aktaren datatik 30 egunen buruan, administrazio kontratugileak kontratistari desadostasun-alderdiei buruz ikuskaritzan erabilitako irizpideak jakinaraziko dizkio.

18-6.- Kontratistaren presentzia kontroletan

Adjudikaziodunak, izendatzen duen ordezkariaren bitartez, administrazio kontratugileak egiten duen kontrola ikusteko eskubidea izango du.

19.- ORDAINTZEKO MODUA

Hilean behin, adjudikazioaren urteko oinarrizko aurrekontuaren 1/12renari dagokion faktura bidaliko da.

Fakturatik hurrengoak deskontatuko dira:
- Betetzen ez diren partidak, prezio unitarioetatik eta egikaritze-maiztasunetik eratorriak.
- Ezarritako zehapenak, horrelakorik egonez gero.
- Administrazio kontratugileari eta hirugarrenei sortutako kalteen zenbatekoak, horiek prestazioak ematen sortu badira, salbuetsiz, administrazioaren agindu zuzen baten bidez eginak izatea.

Ohiz kanpoko eta antzeko lanak arestian aipatutako irizpide berberekin ziurtatuko dira eta bereizita fakturatuko dira.

19.1.- Deskontuak fakturazioan

Plegu honetan zehazten diren zigorrak baztertuta, administrazio kontratugileak fakturazioaren gainean deskontuak aplikatzeko eskubidea izango du honako egoerak gertatzen direnean:

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 35. orrialdea, guztira 44

1. Edozein gela edo zentro aldi baterako ixten denean, kaltetutako azalerari dagokion zenbatekoa deskontatuko da.

2. Edozein gela edo zentro behin betiko ixten denean, kontratua aldatu arte, kaltetutako azaleraren zenbatekoa deskontatuko da.

3. Zerbitzuren bat ematen ez denean, kaltetutako azaleraren zenbatekoa deskontatuko da, ez betetzeagatik udal-egoitzak bidezkotzat jotzen dituen beste neurri batzuk hartzea alde batera utzi gabe.

Edozein gela aldi baterako eta/edo behin betiko ixten bada, administrazioak aldez aurretik e-postaz adjudikaziodunari jakinaraziko dio.

20.- ZIGOR-ARAUBIDEA

Kontratazio-espedientearen barruan dagoen baldintza ekonomiko-administratiboen agirian xedatutako zigor-araubidea baztertu gabe, ondoren, ez-betetzeen ustezko kasuetarako zigor-araubide berezia finkatzen da.

1.- Zerbitzuak eskaintzean adjudikaziodunak izan ditzakeen zigorrak honela sailkatuko dira: oso arinak (OA), arinak (A), larriak (L) eta oso larriak (OL), hurrengo taulan finkatzen den sailkapenaren arabera:

1.-	Langileek araubidezko uniformea ez izatea eta txukun ez egotea.	OA
2.-	Uniformeak eta materiala publizitate- edo propaganda-elementuen euskarri bezala erabiltzea.	A
3.-	Jendea, udal-zerbitzu teknikoetako ikuskatzaileak, agintaritza-agenteak eta bulegoetako erabiltzaileak ez errespetatzeagatik	L
4.-	Zerbitzu bakoitza emateko behar diren segurtasun-elementuak falta dira.	L
5.-	Garbiketa egoera onekiko eta horien garapenarekiko kontrakoak diren egoerak ez jakinaraztea, bai kalitateari, bai langileei eta bitartekoei dagokienez.	A
6.-	Zerbitzua gauzatzean langileen liskarrak edo haserrealdiak gertatzea.	A
7.-	Arau orokorrak ez betetzea.	A
8.-	Kontratatutako zerbitzuek berezkoak ez dituzten zereginetan taldea okupatzea.	L
9.-	Zerbitzu bat arrazoi justifikaturik gabe aldatzea eta aldez aurretik jakinaraztea.	L
10.-	Zeregin berezi bakoitzerako eskatutako material desberdina erabiltzea	L
11.-	Eskuzko bitarteko mekanikoen egoera orokorra, etab., ikuskapen teknikoetan, honela baloratuta:	
	* Ez da nahikoa	A
	* Akastuna	L

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 36. orrialdea, guztira 44

	* Txarra	OL
12.-	Taldea emakidaren berezko zereginak ez diren beste batzuetan okupatzea, eta edozein kontraprestazio edo ordainsari onartzea..	OL
13.-	Kontrol estatistikoan oso prestazio urria hautematea.	OL
14.-	Kontrol zuzenduan oso prestazio urria hautematea.	OL
15.-	Kalitate-aktetan emaitza urriak baieztatzea, hilabete baten barruan sorta bati dagozkion zentroetan aztertutako eta ikuskatutako gela guztien % 2tik % 5era bitarteko emaitza urrien ehunekoarekin, arau-hauste arintzat joko da.	A
16.-	Kalitate aktetan emaitza urriak baieztatzea, hilabete baten barruan sorta bati dagozkion zentroetan aztertutako eta ikuskatutako gela guztien % 5etik % 10era bitarteko emaitza urrien ehunekoarekin edo kalitate-aktetan oso emaitza urriak baieztatzea, edo hilabete baten barruan sorta bati dagozkion zentroetan aztertutako eta ikuskatutako gela guztien % 2tik % 5era bitarteko oso emaitza urrien ehunekoarekin, arau-hauste larritzat joko dira.	L
17.-	Kalitate-aktetan emaitza urriak baieztatzea, hilabete baten barruan sorta bati dagozkion zentroetan aztertutako eta ikuskatutako gela guztien % 10etik gorako emaitza urrien ehunekoarekin edo kalitate-aktetan oso emaitza urriak baieztatzea, edo hilabete baten barruan sorta bati dagozkion zentroetan aztertutako eta ikuskatutako gela guztien % 5etik gorako oso emaitza urrien ehunekoarekin, arau-hauste oso larritzat joko dira.	OL
18.-	Ordezkapen oro, gutxienez, ordezkatuaren prestakuntza, lanaldi eta ordutegi bera duten langileekin ez egitea.	OL
19.-	Gela batean behin eta berriz zerbitzua ez eskaintzea eta/edo zerbitzu publikorako kalte larrian ematea.	OL
20.-	Nahitaezko agiriak plegu hauetan ezarritako maiztasunarekin ez aurkeztea.	OL
21.-	Kontraturako ezarritako giza baliabideekin eta baliabide materialekin zerbitzua emateko konpromisoa ez betetzea.	OL
22.-	Behin eta berriz antzeko lanak berandu egitea, eta plegu hauetako 1.3 puntuan ezarritako epeak ez betetzea.	OL
23.-	Bide publikoko komunetako automatismoak berrikusi, mantendu eta konpontzeko lanak behin eta berriz berandu egitea.	OL
24.-	Enpresa adjudikaziodunak eta/edo bere langileek konfidentzialtasuna urratzea.	OL
25.-	Egikaritze-baldintza bereziak ez betetzea.	OL

2.- Arau-hausteak arau-hauste bakoitzeko honako isunekin deskontatu eta zigortuko dira:

*Zigor oso arinak	(OA)	601,01 eurora arte.
*Zigor arinak	(A)	601,02 eurotik 1.202,02 eurora.
* Zigor larriak	(L)	1.202,03 eurotik 6.010,12 eurora.
* Zigor oso larriak	(OL)	6.010,13 eurotik 30.050,601 eurora.

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 37. orrialdea, guztira 44

V. KAPITULUA: ESKAINTZAK AURKEZTEA ETA BALORATZEA

21.- LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Lehiaketa hau eskuratu nahi duten enpresek, derrigorrez aurkeztu beharko dute lehiaketa honen baldintza ekonomiko-administratiboen baldintzen pleguan adierazitako dokumentazioa eta **3. GUTUN-AZALEAN** honakoak aurkeztu beharko dituzte:

- Eskaintza ekonomikoaren eredua eta automatikoki baloratuko den gainerako dokumentazioa.
- IV., V., eta VI. eranskinak.
- Plegu honetan jasotako lanak eta zerbitzuak gauzatzeko antolakuntzari buruzko azterketa tekniko-ekonomikoa. Azterlan horren xedea eskaintza ekonomikoaren koherentzia justifikatzea da, eta gutxienez eraikin bakoitzeko fitxa bat izango du aztergai, IV. eranskinarekin bat etorri beharko dena.

Gainera, balio-iritzia izan beharko duen memoria teknikoan dokumentazio hau aurkeztu beharko da **2. GUTUN-AZALEAN**, eta proposamen teknikoari egokituta:

- Organigrama funtzionala eta kontratuaren arduradunaren kategoria profesionala eta curriculuma. Bere ardura izango da kontratua zuzentzea, zereginetako osasunean, segurtasun-estandarretan, garbiketa-metodoetan eta zerbitzuarekin zerikusia duten ingurumeneko kontuetan prestakuntza duen udal-teknikariarekin egunero harremana izanik.
- Zentro bakoitzean zerbitzuak eskainiko dituzten langileen zerrenda izengabea. Kategoria eta lan-baldintzak, baita taldearen gainerako kideak eta administrazio nahiz zuzendaritza staff-a adieraziko dira, kontratu honetan ardura badute.
- Lizitatzaileak kontraturako eskaintzen dituen kalitate, ebaluazio eta kontroleko bitartekoak, emaitza ona izateko berme egokiarekin.
- Kontratuan zehar edukiko dituen ibilgailuen, makinen eta bitarteko lagungarrien zerrenda, eta beraien fitxa teknikoak, kontratu honetan jasotako ingurumeneko exijentziak betetzea barne.
- Proposatzen diren garbiketa-produktuen zerrenda, bakoitza bere segurtasun-fitxarekin.
- Kontratuan edukiko dituen instalazioen eta bitarteko osagarrien zerrenda.
- Larrialdietan, osasun-alertako egoeretan eta abarrean jarduteko plana.

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 38. orrialdea, guztira 44

22.- LIZITATZAILEEN PROPOSAMENA ETA KONTRATATZEKO GAITASUNA FROGATZEA

Eska daitekeen kontratistaren sailkapenari dagokionez, SPKLren 9/2017 Legearen 77. artikuluan ezarritakoaren arabera, lizitazioaren zenbatekoa eta enpresa lizitatzaileei eskatzen zaien gaitasun teknikoa honako hauek dira:

- Azken 3 urteetan, gutxienez, herritarrei irekitako eraikinetako barnealdeak garbitzeko kontratu bateko esperientzia izatea, gutxienez 77.000 biztanle dituen herri batean edo gutxienez 77.000 biztanle dituzten 3 herritako 3 kontratutan.

Kontratistaren sailkapena, gaur egun ez dena eskatzen zerbitzu-kontratu honetarako; zerbitzu-kontratu honetan kontratistak gaitasun teknikoa ordezkatzeko erabili ahal izango duena hauxe da:

U TALDEA ZERBITZU OROKORRAK.
1 azpitaldea. Garbiketa orokorreko zerbitzuak.
Kategoria: 5.

Ekonomia- eta finantza-kaudimena justifikatzeko, urteko negozio-bolumena 2.938.498,40 eurokoa izango da gutxienez azken 3 ekitaldietan negozio-bolumen handiena duen urtean.

9/2017 SPKLren 76.2. artikuluan xedatutakoarekin bat, enpresa lizitatzaileak bitartekoak atxiki ditzan eskatzeari dagokionez, eskaintzan nahitaez hurrengo baldintza teknikoak bete beharko dira eta betetzen ez badira, eskaintza baztertu ahal izango da:

- Gutxieneko NBE elementuak langileentzat: iragazkidun FFP3 maskarak, lanerako arropa, aurpegirako pantailak eta eskularruak, hilabete baterako.
- Komunak garbitzeko gutxieneko elementu kontsumigarriak, besteak beste, detergenteak, poltsak, lanbasak eta baietak, 2 hilabeterako.
- Komunerako gutxieneko gai kontsumigarriak, besteak beste, kloratu gabeko xaboia eta gel hidroalkoholikoa, 2 hilabeterako.
- Iragazkidun FFP3 motako 100 maskara, Getxo Kultura eskuragarri izan ditzan.
- 1 kontratuaren arduradun (subrogazioari lotu gabeko langilea); hori izango da lana zuzenduko duena, eta egunero harremanetan egongo da udaleko teknikariarekin, eta zerbitzuaren arduradun nagusia, honakoetan

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 39. orrialdea, guztira 44

prestakuntza izango duena: osasun okupazionala, segurtasun-estandarrak, garbiketa-metodoak eta zerbitzuarekin lotutako ingurumen-alderdiak. Gainera, azken 3 urteetan, gutxienez eraikin publikoen barneko garbiketako zerbitzu kontratu 1eko esperientzia izan beharko du gutxienez 77.000 biztanleko udalerri batean edo gutxienez 77.000 biztanle biltzen dituzten 3 udalerritako 3 kontratutan.

23.- LIZITAZIO-AURREKONTUA

Zerbitzuaren urteko gehieneko zenbatekoa HIRU MILIOI BOSTEHUN ETA BERROGEITA HAMABOST MILA BOSTEHUN ETA LAUROGEITA HIRU EURO ETA ZAZPI ZENTIMOKOA (734.910,40 €) izango da (% 21eko BEZarekin). Lizitazioko urteko zenbatekoen banaketarekin:

Lizitazio/urteko oinarrizko zenbatekoa: 449.058,93 €.
% 21eko BEZa/urtean: 94.302,38 €.

Hauxe da urteko zenbatekoen banaketa, lan-motaren arabera:

OHIKO LANAK

	URTEKO PREZIOA (BEZa KANPO)	**BEZa (% 21)**	**URTEKO PREZIOA (% 21eko BEZa barne)**
Getxo Kultura	429.058,93	90.102,38	519.161,31

EZ-OHIKO LANAK ETA ANTZEKOAK

Informazio modura, beharrezkoak balira, administrazio honek ohiz kanpoko garbiketak eta antzeko zerbitzuak egitera bideratuko dituen gehieneko urteko zenbatekoak azaltzen dira. Nolanahi ere, ohiz kanpoko garbiketak faktura bereizian emango dira.

	URTEKO PREZIOA (BEZa KANPO)	**BEZa (% 21)**	**URTEKO PREZIOA (% 21eko BEZa barne)**
Getxo Kultura	20.000,00	4.200,00	24.200,00

Honako hau da zenbatespena, lizitazioaren balioaren kostuak justifikatzeari eta genero-bereizketari buruzko 100.2 artikuluan jasotakoari jarraituz:

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 40. orrialdea, guztira 44

ZERBITZUAREN AURREKONTU BANATUA – GETXO KULTURA

ZUZENEKO KOSTUAK	GASTUAK: eskulana, zenbatetsia	348.028,76 €
	GASTUAK: materialak, zenbatetsia	7.565,84 €
	GASTUAK: makineria, bitarteko osagarriak, zenbatetsia	22.697,53 €
ZEHARKAKO KOSTUAK, GASTU OROKORRAK		26.480,45 €
INDUSTRIA-IRABAZIA		24.286,35 €
BEZa		% 21

URTEKO LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA, GUZTIRA

BANAKETA **Langileen GASTUAK**	KATEGORIA (pertsona kop.)	GENEROA (pertsona kop.)	ZENBATEKOA (euro/ hilabetean)
Bizkaiko 2021eko eraikinen eta lokalen garbiketa-hitzarmena	7 garbitzaile	G/E	HITZARMENA
	1 arduradun nagusi	G/E	HITZARMENA

Ez-ohiko eta antzeko lanak kontratazio berriko langileekin egiten dira edo kontratuko/enpresako langileen lanaldiak zabaltzen dira edo kanpo-enpresak kontratatzen dira. Lan horien xehakapena aurrekoaren irizpide bera jarraitzen du.

XEHAKAPENA **Langileen GASTUAK**	KATEGORIA (pertsona kop.)	GENEROA (pertsona kop.)	ZENBATEKOA (euro/urteko)
Bizkaiko 2021-2025eko eraikinen eta lokalen garbiketa-hitzarmena	7 garbitzaile	G/E	HITZARMENA
	1 arduradun	G/E	HITZARMENA

GENERO-SEGREGAZIOA: Aurrekontu hau egiteko ez da aplikatzen, ez baitago ordainsari-diferentziarik Bizkaiko eraikinen eta lokalen indarreko garbiketa-hitzarmenean.

24.- BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Honako hauek dira kontratua adjudikatzeko oinarri gisa erabiliko diren irizpideak:

A.- FORMULA BIDEZ ZENBATZEN DIREN IRIZPIDEAK (gehienez 51,00 puntu).

Formula baten bidez kuantifika daitezkeen irizpideetan gehienez BERROGEITA HAMAIKA (51,00) puntu jasoko dira EHUNetik (100,00), honako banaketari jarraikiz:

A.1.- Gehienez **HOGEITA SEI** (26,00) puntu emango zaizkio zerbitzu **OHIKOEN** urteko kostuaren eskaintza ekonomikoari, eta banaketa hurrengo moduan egingo da:

Eskaintza ekonomikoak honako formularekin bat etorriz balioztatzea proposatzen da.

Gehieneko puntuazioa, HOGEITA SEI (26,00) puntu, baliozko proposamen modura onartzen den eskaintzarik onenari emango zaio.

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 41. orrialdea, guztira 44

Lizitazioaren oinarrizko zenbatekoaren eskaintzak zero (0,00) puntu lortuko ditu.

Gainerako eskaintzei honako formula aplikatuko zaie:

$$\text{Oinarrizko puntuazioa} = \frac{\text{Gehieneko puntuak x Eskaintza ekonomikorik onena.}}{\text{Aztertzeko eskaintza}}$$

Eskaintzek ohiz edo neurriz kanpoko balioak izango dituzte, 9/2017 SPKLren 149. artikuluan xedatzen denerako, HAKLEOk 85. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lizitazio-oinarria gainditzen duten eskaintzak lizitaziotik kanporatuko dira.

A.2.- Gehienez **HAMABOST** (15,00) puntu emango zaizkio zerbitzu **EZ-OHIKOEN ETA ANTZEKOEN** urteko kostuaren eskaintza ekonomikoari (5. eranskina) eta banaketa hurrengo moduan egingo da:

Gehieneko puntuazioa, HAMABOST (15,00) puntu, baliozko proposamen modura onartzen den eskaintzarik onenari emango zaio.

Lizitazioaren oinarrizko zenbatekoaren eskaintzak zero (0,00) puntu lortuko ditu.

Gainerako eskaintzei honako formula aplikatuko zaie:

$$\text{Oinarrizko puntuazioa} = \frac{\text{Gehieneko puntuak x (-\% 1 beheranzko eskaintza ekonomikorik onena).}}{\text{(-\% 1 aztertu beharreko beheranzko eskaintza)}}$$

Eskaintzek balio anormalak edo desproportzionatuak izango dituzte 9/2017 SPKLren 149. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, APKAOaren 85. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lizitazio-oinarria gainditzen duten eskaintzak ez dira kontuan hartuko; baztertuta geratuko dira.

Eskaintzaren bitartez enpresa lizitatzailearen azkeneko eskaintzaren beheranzko ehunekoa zehaztuko da, lizitazio-prezioen taulan aplikatu beharrekoa.

A.3.- Eskainitako HOBEKUNTZA AUTOMATIKOARI gehienez ere **BOST (5,00)** puntu emango zaizkio eta jabetzarentzat ez du kosturik izango. Hala, enpresa lizitatzaileak HARTUTAKO KONPROMISOARENGATIK 5 PUNTU emango dira, **genero-ikuspegia** txertatzeko:

- Enpresa lizitatzaileak konpromisoa hartzea kontratu honetako langileei emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko prestakuntza emateko……2 puntu.

- Kontratu honetako plantillarentzat berdintasun-plan espezifikoa ezartzeko konpromisoa……3 puntu.

A.4.- Gehienez ere **BOST (5,00)** puntu emango dira eskainitako HOBEKUNTZA AUTOMATIKOAN jabetzarentzako kosturik gabe, hau da, 1 PUNTU 500,00 euroko (BEZik gabe). Gastu-konpromiso hori bukatu arte erabiliko da urtea hasten denean eta

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 42. orrialdea, guztira 44

2.eranskineko **LAN EZ-OHIKOEN ETA ANTZEKOEN** atalean jasotako lanak hobetzeko izango dira eta eskainitako prezioen taula honekin bat eginez gauzatuko da, beheranzko eskaintza barne.

Hobekuntzak urte bakoitzean aplikatuko dira eta informazio- ondorioetarako lizitatzaileak metro karratu bakoitzeko prezioen atalak beteko ditu lurzoru talde bakoitzean, VI. eranskinean jasotakoa.

B.- BALIO-JUDIZIOAREN ARABERAKO IRIZPIDEAK (gehienez 49,00 puntu).

Formularen bidez kuantifikatzen ez diren irizpideek edo iritzien araberakoek gehienez BERROGEITA BEDERATZI (49,00) puntu jasoko dituzte, banaketa honi jarraikiz:

B.1.- MEMORIA, gehienez 49 puntu:

Kontratu hau garatzeko emandako dokumentazioaren edukia, azalpena eta xehetasun-maila baloratuko dira, eta bereziki honako hauek:

a) Metodologia (gehienez 26 puntu).

Gauzatu beharreko lanen metodologia zehaztuko du, pleguetan adierazitako zeregin nagusiak adieraziz, ohiko lanentzako, ez-ohiko lanentzako eta antzeko lanentzako eta, hori guztia, labur eta zehatz.

b) Antolamendua (gehienez 15 puntu).

Langileak antolatzeko metodologia deskribatuko da, eta zerbitzuaren arduradun nagusiak egingo du udaleko langileekin, ikastetxeekin, udal-eraikinetako arloetako arduradunekin eta abarrekin koordinatuz.

c) Kontratu honen xede diren lanak egiteko bitarteko material eskuragarrien zerrenda eta deskribapen zehatza, hala badagokio, gai suntsikorrena, eta abar (8 puntu gehienez).

Zerbitzu horretarako erabiliko diren ibilgailuak, bitarteko osagarriak eta ekipamenduak adieraziko dira, eta instalazioak eta kontratu zehatz horretarako erabilgarri dauden ordezko piezak azalduko dira.

25.- LANAK ORDAINTZEA

Hileko ziurtagirien bidez ordainduko dira. Lehenengo fakturan eskainitako zerbitzu ohikoaren prezioaren hamabirenak jasoko dira, eta bat egin beharko du (kenkariekin edo gabe) eman gabeko zerbitzuekin, eta bigarren faktura banatuta emango da hala badagokio, ez-ohiko lanei eta antzeko lanei buruz, lizitazioko prezioen taularekin bat eginez eta eskainitako jaitsieraren ehunekoa aplikatuz, eta hori guztia, plegu teknikoan adierazitakoarekin bat etorriz.

26.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Sektore publikoaren kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 202. artikuluan eta ABPn jasotakoak beteko dituzte, ingurumena babesteko neurriak ezarriz:

- Garbiketa-produktuek (desinfektatzaileak bezala kasu justifikatuetan izan ezik) I. motako eko-etiketa baten baldintzak beteko dituzte, hala nola zisne nordikoa, etiketa

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 43. orrialdea, guztira 44

ekologiko europarra edo baliokidea, produktuaren formulazioan konposatu kimikoak izateari dagokionez eta/edo indarrean dagoen aplikatu beharreko legeriari dagokionez.

Justifikaziorik gabe baldintza berezi hauek betetzen ez badira, 9/2017 Legearen 192. artikulua aplikatuko da, eta arau-haustea izango da, eta zehapena arau-hausteei eta zehapenei buruzko atalean adierazitakoekin bat eginez ezarriko da.

Baliozkotze Kod.: 626F9S5YAJEJ2LEY32ZC7F36W
Egiaztapena: https://sede.getxo-kultura.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 44. orrialdea, guztira 44